



2008KO APIRILAREN 24KO
OHIKO OSOKO BILKURA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta zortziko apirilaren hogeita lauan, iluntzeko zazpi-etan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Patxi Albisu Estensoro Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Felix Urkola Iriarte, Amagoia Naldaiz Mingo, Xanet Barreras Jauregi, M^a Lourdes Garmendia Guerra, Xabier Arrasate Aierbe, Inazio Barandiaran Aldasoro, Juan Manuel Serna Portugal, Ricardo Crespo Rubio, Iñaki Saldaña Herrero eta Javier Moreno González de Lara.

Aktan adieraziko da Inazio Estensoro Eskisabel zinegotzia bertaratzen deneko unea.

Angel Hernandez Marzal zinegotzia ez da bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2008ko otsailaren hogeita 28an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatetzako Ebazpenen berri ematen du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

III.- LAZKAO LANTZEN, S.A.RI SANTA MAGDALENAKO GARAJEEN KUDEAKETA AGINTZEA.-

Lazkaoko Udalak Santa Magdalenako etheen arteko lorategietan lurrazpiko aparlekuak eraikitzeko asmoa du. Hori horrela izanik, Udal titularitateko Lazkao Lantzen, S.A.ri lan hori aurrera eramatearen kudeaketa egin dezan agintzea egokia ikusten da, eta horixe hain zuzen ere Osoko Bilkura honen aurrera aurkezten dena bere onarpenerako.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du pozten direla azkenean ere udala gai horrekin hastera dihoala ikustean, eta bakar bakarrik Lazkao Lantzeni ohararazi nahiko lioketela, obra honek etxebizitzetara ukitu dezaienez gune horretako jendearen kezka ikusita, lanak segurtasun neurri guztiak hartuta egitea.

...///...

Gaia bozketan jartzen da eta Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, Santa Magdalenako lurrazpiko garajeen kudeaketa Lazkao Lantzen, S.A.ri agintzea erabakitzen du.

IV.- CHERNOBILGO UMEEN ALDEKO MOZIOA.-

Alkateak esaten du mozio hau Eusko Legebiltzarrean onartutakoa dela eta gure egitea proposatzen dela.

Mozioak honela dio:

"Aurten 20 urte bete dira Txernobileko hondamendi nuklearra gertatu zenetik. Giza tragedia hori hainbat arrazoiengatik gogoratu beharra dago. Historiako lehenengo hondamendi nuklearra da nahita egindakoa izan ez zena, hain zuzen ere energia atomikoa helburu bakesuetarako erabiltzen zenean kaltegarria ez zela zioen teoriari bukaera eman ziona. Bigarrenaz, 200.000 hildako baino gehiago eta milioika eta milioika kaltetu eragin ditu jada. Zuzeneko ondorioek inolaz ere milaka eta milaka urtetan iraungo dute. Beraz, hondamendi honek bizirik dirau bere ondorioetan, ez da iraganeko kontua.

Zenbait txosten baikorrek, Energia Atomikorako Nazioarteko Agentziarenak kasu, hurrengo urteetan beste 4.000 minbizi-kasu iragartzen dituzten bitartean, nazioarteko ospea duten zenbait zientzialarik egindako azterketa zientifikoek esaten dute minbizi-kopuru hori 30.000 eta 70.000 bitartekoa izango dela. Zuzenkien erasandako eremuak Ukraina, Bielorrusia eta Errusia diren arren, igorritako radiazioaren bi herenak herrialde horietatik kanpora joan ziren, batez ere mendebaldeko Europako hainbat eta hainbat eskualdetara. Azkenean modu batez edo bestez isurpen radioaktiboak Europaren ehuneko 40 kutsatu zuen.

Giza hondamendiaren tamaina dela eta, Nazio Batuen Garapen Programaren barruan programa berezi bat sortu da Txernobilerako. Programa horrek helburu hauek ditu gaur egun. Bat, aholkularitza-politika bat egitea aldaketa politiko eta instituzionalak bultzatzeko. Aldaketa horien helburua da hondamendiak zuzenkien jotako eremuen garapena, *Berroneratzeko estrategia* bat izeneko Nazio Batuen txostenaren arabera, erasandako pertsona eta komunitateen autodependentzia sustatzeko, gizarte-, ekonomia-, osasun- eta ingurumen-arazoei aurre egin diezaieten. Eta amaitzeko, laguntza instituzionalen sistemak indartzea.

Euskadin familia eta erakundez kanpoko erakunde askoren elkartasun aktiboa goraipatu beharra dago, aspaldi-aspaldian hartzen ari baitira urtero Txernobilen hondamendiak jotako eremuetako haurrak. Era horretara laguntza handi-handia ematen dute, bai haur horien osasuna bere onera ekartzeko, bai bizi duten egoeraren ondorio psikologikoak arintzeko.

Beste giza tragedia askotan bezala, gogoratu egin behar da hondamendi hauek askoz ere ondorio larriagoak izaten dituztela biktimak pobrezian bizi, egiturazko gabezi handiak izan eta erakunde-laguntzarik izaten ez dutenean. Zoritxarrez, askotan ahaztu egiten zaigu, *per kapitako* BPGaren indizeei eta Nazio Batuen Garapenerako Programak urtero zabaltzen dituen indizeei begira Europak badituela herrialde batzuk hirugarren mundutzat jotzeko modukoak. Herri horiek populazio-geruza handi batzuk pobreziaren atalasearen azpian

...///...



...///...

dituzte, baita halaber gabezia handiak elikaduran, osasun-asistentziarik eza, haurrak kalean beren kasa, familia desegiratuaren kopuru asaldagarria eta umezurztegiak ume abandonatuez gainezka -gutxieneko garbitasun eta osasun baldintzarik gabe-, eta beste arazo asko eta asko, askotan gure kontinentetik kanpo baino existitzen ez direla uste dugun arren.

Gutziz argigarriak ditugu, alde horretatik, Nazio Batuetako idazkari nagusiaren hitzak. Eta hau diño: 'Ez dugu ahaztu behar Txernobileko arazoaren giza dimentsioa. Gainera, hondamendi horren mende bizitzen jarraitzen duten pertsonen hainbeste behar duten nazioarteko laguntza sustatzeko asmotan, informazio publiko inpartziala eman beharra daukagu etengabe, inork ere ahaztu ez dezan gertatutakoa. Hartarako, denon ahalegin itunduak beharko ditugu. Espero dut beste estatu kide batzuek Suitzaren etsenpluari jarraitu eta behin berriro konpromisoa hartzea parte-hartze aktiboa izateko Txernobilekin lotutako sorospen-lanetan. Nazio Batuek, bestalde, aurrerantzean ere etsi-etsian parte hartuko dute lan horietan'.

Eusko Legebiltzarrak, 2002ko apirilaren 16an aho batez onetsitako lege besteko proposamenen, hauxe azaldu zuen: 'Eusko Legebiltzarrak erakunde guztiei eta batez ere Eusko Jaurlaritzari, eskatzen die lehentasunez Ekialdeko Europako herrialde horientzat izenda ditzatela laguntzak, garapenerako lankidetzaprogramen barruan'.

Horregatik guztiagatik, Eusko Legebiltzarrak erabaki du:

- 1.- Gogoratzea bai Txernobileko hondamendi nuklearraren 20. urteurrena bai hondamendi horrek eragindako milaka eta milaka biktimak ere.
- 2.- Adieraztea Txernobilgo tragedia oraindik bizirik dagoela eta bai orain bai hemendik aurrera ere luzaroan biktimak eragingo dituela.
- 3.- Animatzea euskal erakundeak eta gizartea Txernobilgo tragediak erasandako populazioaren aldeko ekimenak bultzatzen jarraitzera.
- 4.- Eta azkena, berrestea 2002ko apirilaren 16an aho batez onetsitako ebazpena, ebazpen horretan erakundeei eskatzen baitie lehentasunez Ekialdeko Europako herrialde horientzat izenda ditzatela laguntzak, garapenerako lankidetzaprogramen barruan".

Mozioa bozketan jarri eta Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien adostasunarekin, berau onartzea erabakitzen du.

V.- LAN OSASUNAREN EGUNARI BURUZKO MOZIOA.-

Ezker Batua-Berdeak udal taldeak Lan Osasunaren Eguna den apirilaren 28ari buruzko mozioa aurkeztu du udal honetan. Mozioak honela dio:

"Lan-baldintzek zeresan handia dute gizarte-baldintzak, eskubideak eta biztanleen osasunegoera zehazteko orduan. Osasunaren helburuaren aurretik, gaur egungo lan-munduan, arriskua, ziurgabetasuna, kolokatasuna, ezbehar-tasa eta esplotazioa areagotu dira.

Ezbehar eta gaixotasun profesionalak ez dira halabeharraren eta zorte txarraren emaitza, laneko prebentzio eskasaren adierazgarri baizik. Badago halako egoerak ekiditerik, bizi-

...///...

...///...

tzaren eta osasunaren babesa lehentasuntzat hartuz gero. Laneko osasuna zaintzeko, era guztietako lan-arriskuei erantzun beharra dago honako arlo hauetan: segurtasuna, higie-nea, ergonomia eta esparru psikosoziala. Enpresa-munduan garatu behar bada ere, ageri-agerikoa da gizartean eta osasunean bertan ere baduela eraginik. Hori dela eta, gure us-tez, prebentzioa eta osasuna sustatzeko, ezinbestekoa da ekintza koordinatu zabala abian jartzea, zenbait mailatako administrazioetan, osasun-sektoreetan, sindikatuetan, enpre-setan, gizarte zibilaren erakundeetan eta komunikabideetan. Lan-ikuskaritza funtsezkoa da, sindikatu eta patronalen jarduketa hitzartuarekin batera.

Euskadiko zenbait administrazioek, esate baterako, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gi-zarte Gaietako Sailak, Arabako Aldundiak edo Vitoria-Gasteizko Udalak, zenbait hitzarmen ezarri dituzte sektoreko sindikatu eta patronalekin, euren ardurapeko lanetan laneko osa-sunaren prebentzioko arazoei aurre egiteko.

Laneko osasunaren esparru zabalean, sindikatuak lanbide-gaixotasunei eman diete le-hentasuna, azken urteotan. Laneko istripuen mutuek onartu egiten dute laneko gaixota-sunen bi heren gaixotasun arrunten azpian ezkutatzen direla. Horren ondorioz, gaixo eta senideentzako prestazioak galdu egiten dira, eta osasun-sistema publikoa gainezka dago.

Apirilaren 28an, Langileen Segurtasun eta Osasunaren Nazioarteko Eguna izango denez, Nazioarteko Sindikatuen Konfederazioak (NSK-k) iaz mundu zabalean hildako 2 milioitik gora langileak gogorarazi nahi dizkigu, lan-baldintza eskasen eta enpresen prebentzio-faltaren biktimak izan dira-eta. Egun hori oso egokia da, laneko osasunaren prebentzioa-ren ezarpena eta lanbide-gaixotasunen, ezintasunaren edo laneko heriotzaren murrizketa eskatzeko.

Hori guztiori dela-eta, Ezker Batua Berdeak-ek honako mozio hau proposatzen du:

- Adierazpen instituzionala egitea, laneko osasuna defendatzeko, laneko prebentzioa eskatzeko, laneko istripuen eta lanbide-gaixotasunen ondorioz hildakoak gogoratzeko eta egoera hori salatzeke."

Jendartetik eta alkateak horretarako baimena eman ondoren Igortz Badiolak hitze-giten du eta esaten du mozioak dioena horrela dela eta gaineratzen du Euskal Herrian bertan hildako asko izan direla azken urte guzti hauetan lan istripuetan izan direnak eta adierazpen instituzionala egitea oso ondo dagoela baina horretan bakarrik gelditzea ez de-la nahikoa eta hitzetatik ekintzetara pasatu beharko litzatekela.

Serna zinegotziak (PSE-EE) honek mozioaren edukia aldatzea suposatzen al duen galdetzen du.

Alkateak erantzuten dio mozioa aurkeztu den bezala bozkatuko dela.

Honen ondoren gaia bozketan jartzen da eta Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien adostasunarekin mozioa onartzea erabakitzen du.

VI.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

...///...



...///...

Alkateak esaten du idatzi bat jaso dela udaletxean Infantaduaaren jauregiaren jabe-go aldaketari buruz dauden zurrumurruen inguruan galdetuz, eta galdera horiei erantzuna eman nahi diela eta esaten dukearen ordezkariekin egon dela zurrumurru hauek baieztatu edo ezeztatzeko eta honek ezeztatu egin dizkiola. Esaten du baita ere gutun bat bidali dio-la Dukeari berarekin elkarriketatzea eskatuz.

Une honetan Inazio Estensoro zinegotzia bertaratu da.

Alkateak, gaiarekin jarraituz, esaten du Dukearen jauregiaren erabilpenari dagokio-nean etorkizunean udalaren jarrera, bere ustez, ahal den erabilpen sozial zabalena izatea izan behar dela, beti ere udalaren ekonomia ito gabe.

Urkola zinegotziak (EAJ) aurreko legegintzaldian, bera alkate izanik, gai honen in-guruan egin ziren kudeaketen berri ematen du.

VII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zortziak hogeita bost gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziur-tatzen dudalarik.



